

Zuzia

HATZRESIA APUTZUZ, BIDEA ZABALDUZ

1. Zenbakia

2021eko maiatza

BERRIAK



-Aberri Eguna, Gernika

martxan jartzen ari den eta landuko dituen izaera sektorialeko ekimenak ezagutzera eman, eta hauen nondik norako eta abiaraztearen zergatia azaldu ziren.

Lehen hilabetean kanpainarako baliatutako bitartekariak, hasiera batean, testuingurua zela eta Aberri Eguna non burutu oraindik ezbaian zegoenez Gernikara deitzen ez zuten arren, 10 egun lehenago JARDUN-en sare sozialen bitartez manifestazioa eta ekitaldiaren berri eman zen. 600 bat pertsona bildu zituen Aberri Egunak, zantantzarrak buru Gernikako kaleak zeharkatu zituen, nazio eta klase auziari so egiten zioten aldarrietatik haratago, Amnistia bezalako aldarriek ere bere lekua eduki zutelarik ibilbidean zehar solidarioen eskutik. Gerora, Gernikako anfiteatroan bukatu zen manifestazioa. Bertan, JARDUN-en Ekimen Feministako, JARKI antolakunde iraultzaileko eta JARDUN-eko hizlari banak hartu zuten hitza. Koordinadora zertan den, Aberri Eguneko koordinadoraren irakurketa eta ekimen bakoitzaren nondik norakoak eta hurrengo hilabeteetan jorratu beharreko ibilbidearen xehetasunak azaldu zituzten. Testuinguruak bestelako egitaraua burutzea ezinezkoa egin zuen arren, koordinadorak izaera politikoko egitarauari eusteko erabakia hartu zuen, hauek aurrera eramateko gai izan zelarik.

BORROKATZEA BESTERIK EZ DUGU EUSKAL HERRIA ASKE IZAN ARTE!

Batasuna eta antolakuntza dira hurrengo hilabetei begira JARDUN koordinadorak aurrera eramango duen praktika politikoaren oinarritzeko klabe komunikatiboak. Gauzak horrela, ez da harritzekoa koordinadorak Aberri Eguna bezalako data bat hauta izana bere lehenengo dinamika publikoa martxan jartzerako orduan.

Aberri Eguna JARDUN-en praktika politiko publikoaren lehenengo mugarrria ezarri duen data da, koordinadoraren helburua delarik data hau Euskal Herriaren nazio auziari erreferentzia egiten dion

data izatetik, Euskal Herri Langileak klase gatazkaren baitan pairatzen duen nazio zapalketa eta klase auzia uztartzen dituen data eta borroka eguna izatera igarotzea. Honekin batera, koordinadora iraultzailea oraindik ere bere lehenengo hastapenetan dagoenez gero, Aberri Eguneko kanpaina bere proiektu politikoa ezagutzera emateko eta, aldi berean, Euskal Herri Langilea alternatiba iraultzailera batzeko deialdia luzatzeko baliatu nahi izan du. Bide horretan, hurrengo hilabeteetan JARDUN-ek alternatiba iraultzailari izaera integrala ematerako bidean

MARTXOAK 3 BORROKAREN HILEZKORTASUNA

1976ko martxoaren 3an Gasteizen emandako sarraskiaren lanketa politikoa burutu zuen JARKI-ko Gasteizko taldeak, dinamika lokal gisa. Gauzak horrela, helburua Martxoaren Hiruko gertakariei buruzko memoria historikoaren inguruko lanketa egin eta hauen klase ikuspegiko irakurketa partekatzea nahiz estatuak berezkoa duen

izate errepresioa agerian uztea zen. Horretarako, bitartekari ezberdinak baliatu zituen, kanpaina komunikatiboaz haratago. Gasteizko JARKI-k bi hitzaldi burutu zituen, bata "Langile antolakuntza klase borroka atzo eta gaur" eta bestea "Emakume langilea Martxoaren 3aren borrokan". Bestalde, antolakunde iraultzaileak bere

lanketaz gain, parte hartze aktiboa mantendu zuen Gasteizko herri mugimenduak Martxoaren 3aren inguruko lanketa egiteko abiarazitako lanketa ezberdinetan, horrelako daten eta gertakarien izaera partidistako eta interesatuetako lanketan erortzea ekidite aldera.

DEBAKO JARDUNALDIAK

Debaldeako JARKI antolakunde iraultzaileko taldeak, apirileko lehenengo astean herri langilearen formakuntza sustatzeko gai ezberdinen inguruko hitzaldiak burutu zituen. Hiru egunetan zehar, errepresioaren izanaz eta helburuez, ekologismoa eta klase borrokaren arteko loturaz, Euskal Emakume Langilearen auziaz, langile antolakuntzaz, JARDUN-en aurkezpena, nazio auzia Euskal Herrian eta emakumea eta kartzela izan ziren hizpide.

Dinamika honen helburua, hasteko, oraindik ere erabat errotuta ez dagoen eremu batean antolakunde iraultzaileak eskualde horretako jarduera politikoa normalizatzeaz eta hau ezagutzera emateaz gain, formakuntzaren bitartez herri langilearengana ailegatu eta antolakunde iraultzailearen inguru soziala ehuntzen joatea zen. Antolakundeak landu ziren gai ezberdinen inguruan duen posizioa eskualdean ezagutzera ematearekin batera. Jendearen

parte hartzea, oro har, Debako eta inguruko testuingurua aintzakotzat hartuz aktiboa izan zen. Hori dela eta, martxan jarritako dinamika lokalaren balorazioa positibotzat jo da. Hitzaldi ziklo hau, JARDUN-ek burutu behar zuen Aberri Egunaren bezperan bukatu zen, alternatiba iraultzaileak azken honen inguruan aurrera eramandako kanpainaren testuinguruan kokatu behar delarik.

ERREPRESIOAREN AURREAN ANTOLATU

Otsailean zehar sarri izan ziren pandemiaren aitzakiapean, erabateko inpunitateaz, kolore ezberdinetako txakurrek Euskal Herri Langilearen aurka burutu zituzten jazarpenaren irudiak. Tamalez, Donostia ez zen egoera honetatik salbu geratu. Horregatik, bertako JARKI antolakunde iraultzaileko taldeak maila lokaleko errepresioaren aurkako dinamika lokala

antolatzea erabaki zuen. Euskal Herri Langileak Donostia mailan pairatutako erasoak salatu eta, aldi berean, errepresioaren izatearen inguruko kontzientzia zabaltzeko eta honek zer interesi erantzuten dion azaleratzeko asmoarekin. Hasiera batean, pegadetan oinarritutako izaera komunikatiboaren bitartez ekin zitzaion kanpainari. Gerora, errepresioaren inguruko hitzaldia

antolatu zen, bertan errepresioaren nondik norakoak, hau da, honen funtzionamendua eta funtsa izan zirelarik hizpide. Dinamikari amaiera emateko, 40 pertsona bildu zituen kontzentrazioa burutu zuen JARKI antolakunde iraultzaileak Bulean, martxoaren 27an. Bertan, dinamikaren baitan egindako errepresioaren inguruko irakurketa zabaldu zen.



·Kontzentrazioa, Donostia

MARTXOAREN BAREN HARIRAKO HITZALDI ZIKLOA

JARKI antolakunde iraultzaileak otsail bukaeratik martxoaren amaieraraino, hainbat hitzaldi antolatu zituen Martxoaren 8aren harira Euskal Herriko puntu ezberdinetan, data honen inguruan abiarazitako kanpaina nazionalaren baitan. Hilabeteko epean 17 hitzaldi burutu zitun JARKI-k.

Dinamikaren helburua argia zen, hasteko, antolakunde iraultzaileak ez zuen Martxoaren 8ko bere lanketa egun batera mugatu nahi. Horrez gain, alde batetik, pandemia egoerak sorrarazitako testuingurua zela medio eta, bestetik, feminismoaren alorrean antolakunde iraultzailearen errotze ezaz kontziente izanda, Martxoaren 8an mobilizazio dinamika propio bat planteatzea ezinezkoa zen. Era berean, JARKI-ko Emakumeen Egitura sortu zenetik antolakundearen klase feminismoari dagozkion oinarriak prestatzen arituta eta behin

bukatuta, hauek ezagutzera emateko aukera zuen antolakundeak. Alde batetik, bere diskurtsoaren nondik norakoak finkatzeko eta, bestetik, klase feminismoaren lanketari dagokionez erreferentzialtasuna eta diskurtsoa finkatzen haste aldera. Gainera, azken urteetako dinamikarekin apurtuz, antolakunde militarrekin aurpegia eman eta publikoarekiko lanketa politiko zuzena egiteko aukera eskaintzen zuen. Bukatzeko, Askatasun Haizea eta Bultza talde lokalek JARDUN-en baitan planteatutako Ekimen Feministaren gorpuzteari laguntzeko baldintzak sortzea zuen helburu hitzaldi zikloak. Izan ere, bertara hurbildu ziren emakumeak Ekimen Feministara batzeko eta hauengana ailegatzeko aukera ematen zuen.

Hitzaldiei dagokionez, antolakundearen balorazioa, bai helburuen erdiespen zein

garapenari dagokionez, gazi-goza izan da. Alde batetik, hitzaldiei dagokien asistentzia maila ez da izan antolakundeak aurreikusitakoa, bi hitzaldi desertu gisa geratzean gauzatu ezin izan zirelarik. Honek ez du esan nahi gainerako hitzaldietako asistentzia urria izan denik, baina hala ere, sozializatzerako orduan eta jendearengana ailegatzeko orduan oraindik ere aurretik lan handia dagoenaren zantzua da. Bestetik, balorazio positiboa egiten da hilabetean zehar bi egunik behin hitzaldi bat burutzea lortu den heinean eta baita Emakumeen Egiturako kideek burututako lanketa politikoari dagokionez, bere lehen hitzaldi eta jardun publikoari ekin baitiote, antolakundearen oinarri ideologikoak zabalduz eta hauek era egoki, garbi eta pedagogikoan plazaratuz.



·Klase feminismoaren hitzaldia, Iturmendi

GORA MAIATZAREN LEHENA!

JARKI antolakunde iraultzaileak, JARDUN-ek Maiatzaren Lehenaren harira antolatutako kanpaina parte hartze aktiboa mantendu zuen. Kanpaina honi izaera nazionaleko kanpaina komunikatibo batekin eman zitzaion hasiera, koordinadorak Laudion goizean burutu behar zuen manifestaziorako deialdia egitea zuelarik helburu.

Kanpainaren helburuak argiak ziren. Hasteko, JARDUN-en presentzia eta Aberri Egunean hasitako lanketa politikoari jarraipena ematea. Bestalde, Maiatzaren Lehenaren harira Euskal Herriko langile klasearen kontzientziazioa sustatzea. Ildo horretatik, Gasteizko JARKI-ko taldeak "Euskal Herri Langilea eta borroka iraultzailea" izenburupean hitzaldia antolatu zuen Judimendiko auzo elkartean, data esanguratsu honen aurrelanketaren baitan.

Laudio pandemia egoera dela eta eremu gorrian egonda ere, gobernuak pandemiarekin antolakuntza politikoa, mobilizazioa eta edozelako

protesta adierazpen ezabatzeko egiten ari diren erabilera dela eta, koordinadorak deialdiari eustea erabaki zuen, honek asistentzian eta oihartzunean edukiko zituen ondorioez jakitun izanda. Izan ere, oztopoen aurrean mobilizatu eta hauei aurre egin ezean, ezinezkoa izango baita Euskal Herrian prozesu iraultzailea abiaraztea.

Maiatzaren Lehenari dagokionez, Laudion goizean goizetik nabaria izan zen poliziaren presentzia, batez ere, paisanoz jantzitako txakurrena. Goizean tentsio uneak eman ziren. Izan ere, Laudion barrena gauzatu ziren margoketen harira, polizia hauetan aritutako langileak harrapatu eta gerora identifikatzen saiatu zenean, tabernetako terrazetan bilduta zeuden gazteengana jo eta hauek identifikatzerakoan udalerrikoak ez zirela ikusterakoan eta "deskribapenarekin bat zetozela" izanda aitzakiapean, isuna jartzeaz gain kalabozora bidaltzeko mehatxupean, euren udalerrira bueltatzera behartu zituzten. Era berean, Laudioko sarreretan kontrol ezberdinak jarri

zituzten ertzainek, hainbat erakundeek Euskal Herrian zehar deitutako mobilizazioen orduarekin kointzidituz egin zuen bezala, manifestaziora bertaratzeko asmoa zeukaten zenbait autori, isuna jarri ondoren, buelta emanarazi zuelarik.

Gauzak horrela, 150 bat pertsona bildu ziren JARDUN koordinadorak Laudion deitutako manifestazioan. Hau Herriko Plazatik hasi zen, Laudioko kaleetan barrena herriari buelta eman eta berriz ere hasierako puntuan bukatu zen, aipagarriak diren titulu edota gertakariak gauzatu gabe. Behin plazan, koordinadorako kide batek batasunean eta antolakuntzan enfasi berezia egiten zuen hitzaldia bota zuen, Maiatzaren Lehena Euskal Herrian izaera folkloriko edota desfileetara mugatutako eguna izateaz haratago, prozesu iraultzailearen baitako beste borroka egun bat lege kokatzearen beharra aipatuz. Ea berean, JARDUN-en parte hartu eta bertan antolatze deia luzatu zien bai bertakoei zein Euskal Herriko langileei.



·Maiatzaren Lehena, Laudio

JARKI-REN HISTORIA LABURRA

JARKI antolakunde iraultzailea 2017. urteko martxoaren 18an sortu zen Arrietan. Bertan, aurreko urteetan antolakunde zein ekimen ezberdinetan parte hartutako kide ezberdinek Euskal Herriko tesituraren inguruko euren hausnarketa partekatu, eta gerora JARKI izena hartuko zuen antolakuntza markoa abiaraztea erabaki zuten. Lehenengo batzar honetan antolakundearen lehenengo antolakuntza eredua, hurrengo 10 urteetarako ildo estrategikoa eta hurrengo hilabeteetan jarraitu beharreko ildo taktikoa nahiz burutu beharreko ekimenak, hau da, eman beharreko lehenengo pausok adostu zituzten, antolakundearen oinarri ideologikoekin batera. Izan ere, JARKI, Euskal Herri Langilearen aurreko borroka zikloaren itxieraren ondorioz periodo honetan sortu izan diren antolakuntza marko ezberdinen esperientziekin batera, Euskal Herriko panorama politikoan 10 urtez emandako noraezaren emaitza dugu.

Ziklo itxiera honek erreferente iraultzaileen eza ekarri zuen, estatuaren diskurtsoaren normalizazioarekin eta nagusitasunarekin batera. Ondorioz, Euskal Herria etsaiaren interespeko normalizazio prozesu batean murgilduta zegoen, Euskal Herri Langileak bere helburuak lortzeko antolakuntza markoen gabezia zuelarik. Testuinguru horretan, JARKI-ren sorrera batzarrean bildutako kideek, une horretan Euskal Herri Langilearen beharrezanean erantzungo zien izaera integraleko alternatiba iraultzailea gorpuzteko baldintzarik ez zegoela ondorioztatu zuten. Izan ere, erabateko desmobilizazio eta alienazio egoeran murgilduta zegoen, normalizazio nahiz pazifikaziorengatik eta baita azken urteetako erreferente iraultzaileen gabeziagatik ere. Honi, urte horien emandako esperientzia ezberdinen arteko harreman eta talkarengatik sorturiko izugarrizko sektarismoa eta ezinikusiak nagusi izatea gehitu behar zaio. Honek jendearen engaiamendua eta parte hartzea lortzea zeharo zailtzen zuen, indarrean zegoen mesfidantza giroagatik, eta guzti honek ezinezkoa egiten zuen alternatiba iraultzailearen gauzapena.

Hori dela eta, egoera hau irauli eta etorkizunean alternatiba iraultzailearen gauzapenerako baldintzen ezarpena errazteko tresna sortzea erabaki zuten, JARKI, hain zuzen ere. Honekin batera, ondorengo abaguneak identifikatu ziren epe motzera burutu beharreko borrokari zegokionez. Lehenik, borroka politikoaren izaera asimetrikoa. Bigarrenik, mobilizazioa sustatze aldera ideologizazio graduala akuilu izan behar duen luzera begirako planteamendua, horrela baldintza subjektiboen erradikalizazio jarraitua ahalbidetu eta Euskal Herri Langilea konfrontazioaren parametroetan kokatzen joateko. Hala ere, jarraitu beharreko ibilbidearen akordioa bazen ere, lan hori aurrera eraman behar zuen antolakundearen inguruko eztabaidari bide eman zitzaion, JARKI aurretik aipatutako abaguneak lantzeko borroka ideologikoa oinarri izan behar zuen koadro antolakundea izan behar zenaren adostasunera helduz.

Aitzitik, urteetako noraezetik eta zenbait dinamika militantetarik eratorritako egoerek ezinezkoa egiten zuten antolakundeak bere egitasmoei berehala ekitea, hasiera batean Bizkaian eta Araban bakarrik presentzia edukitzearekin batera 20 bat lagunez osatuta baitzegoen. Gauzak horrela, 2017. urteko kurtso politikoa bere funtzionamendua eta dinamika militantea zehaztu, errotu zein bermatzeko antolakuntza markoak eta barne-egiturak sortu, eta gainerako herrialdeetara bideratutako saretze kanpainari ekin behar zion. Gainera, eredu militantea ezartzerako bidean aurremilitantziarako materiala prestatzen eta honi forma ematen buru-belarri aritu zen antolakundea. Horrez gain, urtean zehar lurralde antolaketarekin batera bost barne-egitura sortu zituen antolakunde iraultzaileak: Komunikazio Egitura, Formakuntza Egitura, aurremilitantzia materialaren prestateta bere gain hartu zuena, Emakumeen Egitura, Segurtasun Egitura eta Ekonomia Egitura. 2017. urte amaieran kurtso politikoaren itxiera burutu zen, orain arte JARKI-k urtero burutu duen batzar taktikoaren bitartez. Bertan, aurremilitantziarako materiala eztabaidatu

Jarki



·2019ko abenduaren 6ko manifestazioa, Durango

eta onartu zen, kide guztiak aurremilitantzia prozesua burutu behar zutenaren adostasunera iritsi zelarik. Horrela, kideen formakuntza bermatzearekin batera, materialaren egokitasuna frogatu eta beharrezko moldaketak burutzea ahalbidetu zen. Era berean, sortze batzarrean adostutako ildo estrategikoari zegozkion zenbait gabezia suspertu ziren, ildoaren beraren zehaztapena burutu zelarik. Betiere, argi izanda ildo estrategikoaren helburu nagusia hau bukatzerakoan alternatiba iraultzailea osatu ahal izateko baldintzak ezartzea zela.

Epe laburrean antolakunde iraultzaileak aurrera eraman beharreko lana argia zen, indarrean zegoen normalizazio dominantearen aurkako lan politiko, ideologiko eta diskurtsiboa bideratzea, hau burutzeko testuinguru politikoan erreferentzialtasuna irabaztea eta bere barne-egituren osotzea eta egonkortzea, hau dena askapen prozesuaren motorra izan behar zen mugimendu politikoaren eraikuntzari ekin ahal izateko. JARKI publiko egin arte, ordea, urtebete igaro behar zen oraindik ere, periodo horretan koadro politikoak formatzera, kaptaziora eta egituratzera dedikatu zelarik antolakunde iraultzailea, barne-mailan osaketa eta funtzionamendu planteamenduari zegozkion gabeziei aurre egiten ziren bitartean. 2018ko kurtso itxieran, hilabeteetako eztabaidaren ondoren, antolakunde iraultzaileko militantziak drogen eta autodeterminazioaren inguruko posizioa finkatzen zuten ponentzia bana onartu zituen.

“Epe laburrean antolakunde iraultzaileak aurrera eraman beharreko lana argia zen, indarrean zegoen normalizazio dominantearen aurkako lan politiko, ideologiko eta diskurtsiboa bideratzea”

Ilido estrategikoari zegokionez, JARKI antolakunde iraultzailea 2020. urtean publiko egitea aurreikusita

zegoen, baina antolakunde ez da Euskal Herriko panorama politikotik at dagoen elementua, honen parte baizik, honengatik baldintzatua den heinean eta, beraz, gauzak askotan ez dira aurreikusitakoaren arabera garatzen. Hori dela eta, Euskal Herrian zenbait antolakundek eta mugimenduk martxan jarritako dinamikak eta hartutako posizioak etorkizunean JARKI-ren planteamendu politikoa alboratuta edota ezerezean geratzea eragin zezaketen, alternatiba iraultzailearen osatzeari begirako ildo estrategikoaren gauzapena ezinezkoa eginez.

Testuinguru horretan, antolakunde iraultzaileak 2019. urteko Gudari Egunari begira publiko egiteko erabakia hartu zuen. Horretarako abuztuan hasi zen bi fasetako kanpaina abiatu zen. Lehenengo faseak Euskal Herrian zehar pegada masiboen bitarteko kanpaina komunikatiboa izan zuen oinarri, Euskal Herri Langilearengan zirrara eta jakin-mina sortu eta, aldi berean, Euskal Herriko txoko guztietara ailegatuta antolakundearen gaitasun operatiboa erakustea zuen helburu. Behin hori eginda, kanpainaren bigarren faseari ekin zitzaion irailean, Gudari Egunaren beraren inguruko lanketa burututa, eta bere sorreratik burutu izan duen Gudari Eguneko ekitaldia aurrera eramanez.

Antolakundearen gaitasun operatiboa eta lanerako prestutasuna agerian bazen ere, eta Euskal Herriko txoko ezberdinetan jendea JARKI-ren inguruko informazio eske bazebilen ere, antolakunde iraultzaileak ez zuen lortu bere helburu nagusia, hau da, JARKI-ren nondik norakoak ezagutzera ematea. Honek bide eman zien antolakundearen inguruko gaizki-ulertuei zein intentzio makurra zeukaten manipulazioei. Hala ere, antolakundeak bere lan politikoari eusteko konpromiso irmoa zeukan, Gudari Eguneko kanpainaren ondoren, abenduan konstituzioaren aurkako kanpainarekin beste jauzi kualitatibo bat emateko erabakia hartu zuelarik. Bide horretan, abenduaren 6an manifestazioa burutu zuen Durangon, liburu eta disko azokaren testuinguruan. Lan publikoaz aparte, ordea, antolakundeak barne-mailako sukalde lana izan zuen lehenetsun gisa, eragile ezberdinekiko harremanei ekin zielarik. Hauen artean aipagarriak dira Bultza Herri Ekimenarekin eta Eusko Ekintzarekin burututakoak. Bestalde, 2019an JARKI-k bere Lehen Euskal Herriko Mahaia, antolakundeko militante guztiak bildu eta orotariko erabakiak hartzeko gaitasuna duen organoaren bilkura burutu zuen. Lehenengo Euskal Herriko Mahaian, antolakundeak jorratu behar zituen lan esparruak eta borroka moldeak zehazten zituen dokumentua eta bere oinarri ideologikoak garatu, eta Euskal Herri Langilearen eta prozesu



·2020ko uztailaren 18ko manifestazioa, Gasteiz

iraultzailearen subjektua izan behar den Euskal Langileri Iraultzailearen teorizazioa jasotzen zuen ponentzia onartu zituen. Aipagarria da, militantzia kritikoak Euskal Herriko Mahaian jokaturako papera, egituretatik era ofizialean aurkeztutako hiru ponentzietatik bat alboratu baitzuen. Lan ildoa zehazten zuen ponentzia hainbat emendakinekin onartua izan zen eta ildo ideologikoaren zehaztapena inplikatzeko ponentzia, berriz, atzera bota eta militante talde batek aurkeztutako kontraponentzia onartu zuen militantziak gehiengo zabal batekin.

2019ko abenduan JARKI-k bere urteko plangintza taktikoa onartu zuen. Honek, urte luzeetan zehar mantendu beharreko sukalde lanari erreferentzia egiteaz gain, urtariletik kurtso politikoari martxora arte luzatu behar zen sozializazio kanpainarekin hasiera ematea aurreikusita zuena, antolakundearen inguruko nahasmena argitzera bideratuta zihoana. Hala ere, antolakundearen gabeziak zirela eta, kanpaina honi otsailean ekin zitzaion, Martxoaren 8ko kanpainarekin kointziditu behar izan zuelarik. Martxoaren 8ari begira, antolakunde iraultzaileak bere lana kanpaina komunikatibo batean zentratzea erabaki zuen, bere mobilizazio gaitasun urriaren eta feminismoari zegokionez zeukan erreferentzia ezaren kontziente izanda.

Bultza Herri Ekimenarekin eta Eusko Ekintzarekin izandako batzarrei zegokienez, garbi ikusten ari zen antolakundearen arteko sintonia zegoela eta baita hauen arteko elkarlana sustatzeko koordinazio markoak ezartzearen beharra ere. Horrenbestez, hiru eragileek etorkizuneko alternatiba iraultzailearen

hazia izan behar zenaren osaketarako negoziazioei ekin zieten. Hauen ondoren, 2020ko otsailerako, JARDUN koordinadora izango zenaren lehenengo funtzionamendu parametroak eta oinarri ideologikoak eztabaidatu eta adostu ziren eragile ezberdinen artean. Dena dela, uztaileraino itxaron behar izan zen oinarri hauek militantzia guztiarengatik adostuak eta erabakiak izan ziren arte. Bide horretan, Askatasun Haizea Busturialdeko taldea JARDUN izan behar zenaren osaketa prozesuari batu zitzaion.

Covid-19ren harira inposatutako itxialdian zehar antolakunde iraultzaileak ezin izan zion bere funtzionaltasun eta operatibotasunari eutsi, deseginda egon zelarik de facto garai honetan. Behin itxialdia bukatutakoan, berregituratzeko eta berriz martxan jartzeko hilabete eta erdiko denbora tartea behar izan zuen. Antolakunde berreraikitze eta funtzionamenduari berrekiteko militante guztiak bildu zituen batzarra burutu zen. Bertan, emandako gabezien eta akatsen inguruko hausnarketa partekatu ondoren, denen artean hauek ekiditeko konponbideak eta etorkizunean jarraitu beharreko ildoaren inguruko erabakiak hartu zituzten militanteek. Kaleko lana zein presentzia berreskuratzeko asmoz eta Covid-19ren ondorioz sorturiko egoera soziopolitikoari erantzuteko helburuaz, antolakundeak Gasteizen uztailaren 18an deitu zuen manifestaziora joateko irakurketa eta lanketa komunikatiboa burutu zuen. Hala ere, hilabeteko lanketaren ondoren, herri langilearen erantzuna ez zen izan aurreikusitakoa, Gasteizko kaleetan 150 pertsona bildu zirelarik.

Halaber, Eusko Ekintzarekiko akordioa itxita, Albertia Eguna abuztuaren 15era atzeratzeko erabakia adostu zen, bertan JARDUN koordinadoraren aurkezpen publikoa egiteko asmoarekin. Honen inguruko kanpaina uztailaren 18an hasi zen. Abuztuaren 15ean, 3 urte luzeren ondoren JARKI antolakunde iraultzaileak bere ildo estrategikoko helburu nagusietako bat gauzatuta ikusi zuen JARDUN koordinazio markoaren abiarazte eta aurkezpen publikoarekin. Era berean, JARDUN-en aurkezpenaren baitan antolakunde ezberdinekiko kontaktu errondak areagotu ziren, emaitza ezberdinak lortuz.

Irailaren lehen asteburuan, JARKI-k klase feminismoaren lanketari dagokionez aurreikusita zituen Klase feminismoaren inguruko jardunaldiak burutu zituen. Jardunaldi hauek 3 egunetan zehar garatzea aurreikusita zeuden arren, hainbat ezustekoren menpe egon ziren. Hasteko, Gernika udalerria eremu gorrian sartzearen ondorioz, hasiera batean baliatu nahi zen Astra gunea itxi zen eta jardunaldiak burutzeko leku barik geratu zen JARKI, hauek hasi baino 10 egun lehenago. Aitzitik, jardunaldiak mantentzeko asmoa irmoa zenez gero, hauek Durangoko Landako gunean burutzea erabaki zen, honek militantziagatik sostengatua izan behar zen esfortzu ekonomikoa suposatu zuelarik. Bertan, udaletxearen uneoroko oztopo eta trabak gaindituta, jardunaldien lehenengo eguna nahiko era apalean garatu zen. Hau bukatzean, militantziak Igor Gonzalez Solaren eraiketaren berri izan zuen gauean. Horrenbestez, hurrengo egunean Isabel Benitez-en lehenengo hitzaldia era telematikoan ematen zen bitartean, militantzia Durangon bildu zen asanbladan eta jardunaldiak bertan behera utzi eta Igor Gonzalez Solaren mobilizazioetara dei egin nahiz hauetara batzeko erabakia hartu zuen, aho batez.

Albertia Eguna eta gero, JARKI antolakunde iraultzaileak Gudari Eguneko kanpaina eta ekitaldia burutu zituen. Antolakundeari ezinezkoa izan zitzaion, ordea, udan zehar drogen inguruan eta

konstituzioaren aurka azaro eta abendua burutu nahi zituen kanpainak burutzea, murrizketak zirela eta. Hala ere, izaera taktikoko urteko porroten gaineratik JARDUN-en eraketak izaera estrategikoko helburuen arrakasta suposatu zuen, ildo estrategikokoaren izugarritzko aurrerapena eragin zuelarik.

Hori dela eta, antolakunde iraultzaileak indarrean zuen ildo estrategikoa zaharkituta geratu zen. Gauzak horrela, 2021eko urtarrilean antolakundeak Bigarren Euskal Herriko Mahaia burutu zuen. Bertan bere barne-araudia moldatzeaz gain, aktibismoari zegokion proposamena egin eta antolakunde iraultzaileak ekologismoari zegokionez klase irakurketatik eratorritako bere irakurketa eta posizionamendua finkatu zituen, baita Amnistia eta preso politikoezko posizioa ere. Honekin batera, aurreko ildo estrategikoa bertan behera utzi eta hurrengo 10 urteetarako ildo estrategiko berria onartu zen. Azken hau, alternatiba iraultzailearen sotasuna nahiz gauzapena bermatu eta honen itako erretagoardia funtzioa bete beharko duten olakundeen osaketa izan behar da.

Hala ere, koordinadoraren lehenengo hastapenak ez dira samurrak izan. Mugikortasun murrizketek eta pandemiak sorrarazitako egoeran, Eusko Ekintzak, gainerako kideak informatu gabe eta urritik koordinazio markoetara bertaratu barik, 2021eko otsailean bere parte hartzea izoztuta uzten zuela egin zuen publiko bere sare sozialen bitartez. Aipatu beharra dago, bai Askatasun Haizeak, Bultza Herri Ekimenak zein JARKI antolakunde iraultzaileak sare sozialen bitartez izan zutela erabaki honen berri. Dena dela, urritik agertu gabe egon ondoren, eragile lokalek eta JARKI-k Eusko Ekintza koordinadoratik kanporatzeko erabakia hartua zuten, hauek informatu ondoren publiko egiteko asmoa zegoelarik. Izan ere, JARDUN-eko erabakiak antolakunde guztiengatik partekatuak eta eztabaidatuak izan behar zirenez gero, urritik koordinadora blokeatuta zegoen.



·2020ko Albertia Eguna, Legutio

“JARKI-k bere indar guztia JARDUN-era bideratzeko asmoa dauka”

JARKI-ren 2021eko urte hasierari dagokionez, praktika politikorako hilabete latzak izan dira aurtengoak. JARKI-k bere indar guztia JARDUN-era bideratzeko asmoa dauka, aurtengoak sukaldeko lana eta koordinadorak martxan jarritako Ekimen Feminista, Ekimen Antierrepresiboa eta masa borroka bere gain hartu behar duen antolakunde legalaren osotzea babestea eta laguntzea baitira. Era horretan, JARKI-k JARDUN-ek martxan jarritako dinamika ezberdinetan eta koordinadora osatzen duten antolakunde ezberdinekiko elkarlan estuan dihardu, alternatiba iraultzailea ezagutzera emateko dinamiketan eta honen aurkezpen ezberdinetan parte hartze aktiboa izan duelarik.

Era berean, 2021ean antolakundeko tokian tokiko taldeak izaera lokaleko dinamikak martxan jartzen hasi diren urtea izan da, Zuziako berrien atalean ikus daitekeen bezala. Hala ere, ziur gaude asko direla 4 urte hauen erreposan zehar bidean ahaztu ditugun

gertakari zein ekimenak eta ziur gaude, gainera, oraindik asko direla JARKI-k alternatiba iraultzailearen baitan bere historiari dagokionez eman beharreko pausoak. Dena dela, argi eduki behar dugu JARKI Euskal Herri Langilearen beharrezanean Euskal Herri Langilearen Alternatibaren baitan lerratuta bere ekarpena egin behar dion tresna dela, eta lan hori era apal eta zintzoan burutzen duen bitartean zeresana emango duela. Izan ere, kalean sumatzen den lanaz haratago, aintzakotzat hartu behar dugu, batez ere, mugimendu iraultzaile eta konfrontazio ziklo berriaren lehen hastapenak, ikusten ez den baina, hala ere, guztiz beharrezkoa den eguneroko lan isil eta jarraituaren emaitza direla. Lan hau da alternatiba iraultzailea gauzatu eta Euskal Herrian prozesu iraultzailea abiaraztea ahalbidetuko duena.

“argi eduki behar dugu JARKI Euskal Herri Langilearen beharrezanean Euskal Herri Langilearen Alternatibaren baitan lerratuta bere ekarpena egin behar dion tresna dela”




ZER DA JARDUN?

Euskal Herri Langileak konfrontazioan oinarritutako ziklo politiko berri bat ireki behar du parametro iraultzaileetan, Euskal Herriko langileak botere politikoa lortzerako bidean. Horretarako beharrezkoa da helburu hau eta egiteko hau aurrera eramateko tresna eta antolakuntza markoak eratzea. Bere lehen hastapen hauetan, antolakuntza markoak Euskal Herrian prozesu iraultzailea muturreraino aurrera eraman behar duen subjektu politikoa osatu eta antolatzeko eta borrokatzeko tresnez hornitu beharra dauka. Izan ere, subjektu politiko osatu batek bakarrik gara dezake Euskal Herri Langileak beharrezkoa duen konfrontazioa.

Gauzak horrela, JARDUN Euskal estatu independente eta sozialista baten erdiespenerako borrokan diharduten antolakundeen multzoa barnebidu behar duen irudia izan behar da, Euskal Langileri Iraultzailearen antolakuntza markoa, hain zuzen ere. Estrategia eta minimo amankomun baten pean diharduten antolakundeek, bakoitzak bere lan ildoa era autonomoan eta espezifikoa landuz baina, betiere, bide-orri eta estrategia komun baten pean. Horrela, alternatiba iraultzailearen helburu taktiko-estrategikoak txertatuz euren lanketa esparruetan, euren jardunarekin prozesu iraultzailea elikatzen dutelarik aldi berean.

Hala ere, JARDUN-ek koordinadora forma hartzen du, maila nazionalen izaera estrategikoko zein politikoko koordinazio markoa eratuz, maila lokalean Euskal Herriko eskualde ezberdinetan koordinazio esparruak osatzen dituen bitartean. Izaera nazional eta lokalaren arteko mailakatzea ekidin eta bi perspektibak uztartzeko gai den eredu ezartzea da planteamendu honen helburu nagusia, alternatiba iraultzailearen izaera integralean sakontzeko asmoz.

Koordinadora formatua hautatu izana ez da ausazko erabakia izan, izan ere, egun Euskal Herriko panorama politikoko inongo antolakundeak ez dauka Euskal Herriko langile klaseak aurrera eraman behar duen prozesu iraultzailearen osotasuna bere gain hartzeko gaitasunik. Hori dela eta, beharrezkoa da indarrak batzea, antolakunde eta ikuspuntuak partekatu eta minimo batzuen logikan erabakiak era adostuan hartzeko. Koordinadoraren baitan egiteko eta funtzio zehatza betetzen duen antolakunde bakoitzak, bere ikuspuntua erantsiz, koordinadoraren erabakiei osotasuna ematea ahalbidetzen baitu.



JARDUN

Bide horretan, Euskal Herri Langilearen Alternatibak ideologia eta parametro iraultzaileen baitan barnebidutako antolakunde borroka marko eta bilgune izan behar du. Jada existitzen diren antolakuntza eta borroka tresnak batzeko gai izanda edota testuinguru politikoa eta unean uneko baldintzen arabera, ildo estrategikoa jarraiki alternatiba iraultzaileak bere helburuak erdiesteko sortzeko gai izan behar dena.

Azken finean, Euskal Herri Langilearen alternatiba konfrontaziorako tresna izan behar da. Euskal Herri Langilearen Alternatibaren izaera estrategikoa dela eta, JARDUN-en aliantza politika beti izaera taktikokoa izango da, garrantzi berezia emanez berau osatzen duten antolakunde ezberdinek maila sektorialean euren lana aurrera eramateko burutzen duten elkarlanari. Batez ere, herri mugimenduko antolakundeei dagokienez. Horrela, JARDUN-eko militante eta antolakunde bakoitzak bere ekarpena eremu politiko zehatzetara bideratzen badu ere, militante guztiak estrategia eta helburu politiko komunak dituen proiektu politiko baten kide izanik.

INPERIALISMOA: EZKER ATLANTISTA ETA EZKER IRAULTZAILEA AURREZ AURRE

Inperialismoa, Leninek definitu bezala, kapitalismoaren forma gorena da, produkzio modu honen garapen-fase berantiarrean gorpuzten dena, kapital bankarioak eta industrialak bat egin eta klase esplotatzailearen baitan frakzio berri bat sortzen denean; Oligarkia Finantzarioa, hain zuzen ere. Fase honen muinean sistema finantzarioaren guztizko menderakuntza kokatzen da eta dagoeneko ekonomiak ez du merkantzia esportazioa euskarri, kapital esportazioa nabarmenki gailendu baitzaio.

"Gerra Hotzaren garaian, kapitalaren guztizko hedapena oztopatzeko gai izan ziren herrialdeen aurkako eraso etengabeen aurrean, orokorrean ez zen zalantzarik egiten herrialde hauek defendatzeko beharraren inguruan"

Kapitalismo Monopolista gisa ere izendatzen da, kapital metaketa handiak sektoreka geroz eta korporazio gutxiagotan pilatzen joateko joera biderkatzen baita, lehia askean oinarrituriko aurreko faseari buru emanez. Kapital pilaketa hau baina ez da soilik langile nazionalen bizkarrean gauzatzen, mundu osoko baliabide natural eta energetikoen arpilaketa neurrigabearen bitartez baizik. Hortaz, beren merkatuak hedatu edota lehengai gehiagoren ustiapenerako sarbidea eskuratu nahi izatekotan, bestelako estatuak azpiratzera behartuak daude.

Gerra Hotzaren garaian, kapitalaren guztizko hedapena oztopatzeko gai izan ziren herrialdeen aurkako eraso etengabeen aurrean, orokorrean ez zen zalantzarik egiten herrialde hauek defendatzeko beharraren inguruan, eta bere burua sozialista iraultzailetzat zutenen artean nolabaiteko adostasuna zegoela baieztatu daiteke. Bi mundu, bi sistema, bi gizarte eredu aurrez aurre zeuden eta baten ahultzeak besteari indartzea ekartzen zuen ezinbestean.

Bloke Sozialistaren desagerpenaz geroztik ordea, posizio antagonista bat gailendu da. AEBk eta Europar Batasunak ezarritako merkatu globalaren irizpideetatik kanpo garatzera ausartu diren hainbat herrialde inolako oposiziorik gabe mehatxatu eta suntsitu dituzte ordutik hona; Jugoslavia, Libia, Donbass, Yemen, Siria... Herrialde horiekiko antolatutako elkartzasuna eta jasandako erasoen aurrean adierazitako gaitzespena, berriz, hutsaren hurrena izan da.

Are gehiago, zenbait kasutan esku-sartze militarrek balizko posizio ezkertiarretatik sustatu dira inperialismoak herrialde horien inbasioa justifikatzeko eraikitako amarruak bere eginez, giza eskubide eta demokraziaren izenean. Logika humanitario makur horrek, aitzitik, inperialismoari besterik ez dio mesede egiten estatu subiranoen aurkako erasoak justifikatzeari bide ematen baitio eta kasualki, begitan hartzen den herrialdea NATOren jopuntuan dagoena izan ohi da, kapitalismoaren hedapenerako interesen agendarekin uztartuz.

Bortxa militarra justifikatzen ez den kasuetan, erasotzailearen eta erasotuaren arteko berdinketa zitala burutzen da, ez bata ez besteari alde lerratuz. Alta, posizionamendu honen defentsaren antzutasuna agerian geratu da azken urteetako gertakariekin, Jugoslavia, Libia edo Siria kasu. Bada, inperialismoaren eraso baten aurrean anbigutasuna gailentzen denean, jopuntuan dagoenaren suntsiketa eta erasotzailearen indartzea izaten baita etengabe errepikatzen den emaitza.

"Jazarritako herrialdeen kontrako erasoak inperialismoaren aurkako borrokaren baitako balantze orokorraren emaitza praktikoen ikuspuntutik baloratuak izan behar dira"

Haatik, NATO Aliantza Atlantikoaren interesekin bat egiten duen sektorearen aurrean, Ezker Atlantistatzat jo daitekeena, Ezker Iraultzaileak analisi guztiz kontrajarria mahaigaineratu behar du auzi honen inguruan. Jazarritako herrialdeen kontrako erasoak inperialismoaren aurkako borrokaren baitako balantze orokorraren emaitza praktikoen ikuspuntutik baloratuak izan behar dira, hau da, ezin dira modu isolatuan analizatu, testuinguruan kokatu behar dira, gertakari partikularra osotasunean ulertuz. Klase gatazka lokalki garatzen urrun, mundu mailako aldaketa lokal eta globalen arteko elkarreragin konstantean gorpuzten baita.



·Siriako gerrako ondorioen irudia, Damasco

“Nahiz eta delako herrialdearen politiketikiko barne kritikak gauzatzea zilegi eta beharrezkoa den, burutu beharreko aldaketak bertako herri langile kontzientearen baitatik bakarrik jaito daitezke, bertako elementuen arteko klase gatazkan.”

Jazarpen inperialistaren testuinguruan ezin da erasotuen defentsa bere politiken arabera egin, herrialdea guk desiratutako gizarte eta sistema ereduaren parametroetan kokatzen den edo ez, bigarren plano batean gelditu behar baita. Nahiz eta delako herrialdearen politiketikiko barne kritikak gauzatzea zilegi eta beharrezkoa den, burutu beharreko aldaketak bertako herri

langile kontzientearen baitatik bakarrik jaito daitezke, bertako elementuen arteko klase gatazkan. Kanpora begira, munduko mugimendu iraultzaileen eginbeharra erasotuekin lerratzea da, inperialismoak ez duelako sekula bere ekinbidearen muinean jazarritako herrialdeko langileriaren interesen defentsa edukiko, kontrara, bere gaitasun produktibo eta azpiegiturak suntsituko ditu erakunde finantzario inperialisten politiketikiko dependiente bilakatuz eta edonolako prozesu iraultzaile zabaltzeko bidea ezinbestean hertsituz. Subiranotasun nazionala, lurraldearen kontrol efektibo modura ulertuta, esperientzia iraultzaileak gertatu eta denboran zehar mantentzeko oinarrizko baldintza baita.

Bistan da bada, kapitalismo monopolistak helburu duen mundu unipolarra eraikitzeko ezarritako irizpideetatik kanpo kokatzen diren herrialdeen

subiranotasun nazionala defendatzeak objektiboki inperialismoa indargabetu, deskomposatu eta ahultzen duela. Funtsean, inperialismoari bere burua birproduzitzeko beharrezkoak dituen baliabideetarako sarbidea eragozten baitio, merkatu eta lehengai berrien gaineko kontrola ukatuz horrela. Hortaz, kapitalismoaren fase honen guztizko hedapen prozesuan oztopo bilakatu daitezkeen herrialdeen aurka abiarazitako erasoan aurrean hartu beharreko posizionamendua argia eta zehatza izan behar da.

“Subiranotasun nazionala, lurraldearen kontrol efektibo modura ulertuta, esperientzia iraultzaileak gertatu eta denboran zehar mantentzeko oinarrizko baldintza baita.”

SINDIKATUEK KLASE GATAZKAREN BAITAN JOKATZEN DUTEN PAPERAZ

Historian zehar langile mugimenduaren atal garrantzitsua izan den heinean, goazen sindikatuen jatorria eta klase gatazkaren baitan betetzen duten papera aztertzea. Izan ere, ekarpen zein kritiketatik haratago, sindikalgintzak betetzen duen funtzio objektiboa aztertzea dagokigu gure testuinguru hobeto ezagutzeko. Azken finean, gaur egun sindikatuak dira langile mugimenduaren espresio garatu bakarrak.

KLASE GATAZKAREN LOGIKA

Sindikalgintzarekin hasi baino lehen, langile mugimenduaren existentziaren zergatia aipatu beharra dago. Ongien eta zerbitzuen ekoizpenean burgesen eta langileon presentzia ematen da. Burgesek langileen lan-indarra erosi eta gainbalio zein gain-lanaren bitartez etekinak lortzen dituzte. Esplotazio ekonomikoaren garapenaren nondik norakoak, aldiz, politikoak dira: esplotazioarekin amaitzeko edo bera eraldatzeko prest daudenen indarrak handitzen badoaz, burgesek erreformak onartu beharko dituzte, iraultza baten ondorioz haien posizio soziala galtzeraino.

Langileak haien esplotazio ekonomikoaren kontzientzia izan zutenetik antolatzen hasi ziren. Azken finean, injustizia baten aurrean neutral kokatuz gero, injustizia behin eta berriz jazotzea ahalbidetzen baita. Horrela, bere egoera hobetzeko, antolaketa forma eta erreminta ugari garatu zituen langile klaseak: elkarte sekretuak, aldizkariak, lantegietako langile asanbladak, alderdi politikoak, talde armatuak, etab. Gauzak horrela, langile mugimenduaren tresnen artean kokatzen dira sindikatuak.

Klase gatazkaren logikan sarturik, lagun-etsai logikapean, gatazka modu askotara kudea daiteke. Burgesek gainbalioa bereganatu nahi dute eta langileek, berriz, esplotaziorik ez egotea. Helburu guztiz kontrajarriak izanda ere, gatazkaren kudeaketa eredu bat negoziazioa izan daiteke: langileek egoera hobekuntza (soldata igoera, lan baldintza egokiagoak) eta burgesek gainbalioaren zati bat galtzeko prest egotea, baina esplotazioa burutzen jarraitzea. Negoziazio hau, noski, burgesen faltsukeri eta propagandari esker eta haien errepresio ahalmenari esker gara daiteke.

Horren aurrean, klase gatazkan etsaiarekiko erdibideko posiziorik ez dagoela baieztatu beharra

dago, momentuan momentuko indar korrelazioak zehaztuko duelarik konfrontazioaren dinamika. Hori dela eta, ideologizazio, mobilizazio eta antolaketarako deia ezinbestekoak dira etsaiarekiko gatazkan indar korrelazioak aldatzen joateko.

SINDIKALGINTZAREN HASTAPENAK

Gaur egungo Euskal Herrian ezagutzen ditugun sindikatuen aurrekari zuzenak XIX. mendean sortu ziren, Ameriketako Estatu Batuetan eta Europako herrialdeetan, oro har. 1864. urtean sortutako Langile Internazionalak langile mugimendua hauspotu zuen mundu mailan. Tokian tokiko langile federazio lokalak eta sekzioak sortzen hasi ziren, Internazionalarekiko afiliatuak.

Internazionalaren disolbapena jazo ondoren, sindikatuen figura hedatzen hasi zen mendebaldean. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran zeresan handia izan duten siglak sortu ziren, gaur egun ere existitzen direnak, esaterako, Unión General de Trabajadores 1888an, Confédération Générale du Travail 1895ean eta Solidaridad de Obreros Vascos - Eusko Langilleen Alkartasuna 1910ean.

Sindikalgintzaren hastapenean, hauek fabrika edo lantoki mailako elkarteak ziren. Ondoren, sindikatu gehienak ofizio mailan antolatu ziren, lan manualetako fabriketan eta artisau izaerako enpleguetan (jostunen sindikatuak, esaterako). Industria garatzen joan zen heinean, makina baten inguruan eta lanpostu zehatz batean kokatutako langileen inguruan industria-sindikatuak garatzen hasi ziren, metalaren industriako sindikatuak, horien artean. Lehenengo langile elkarteek elkarlaguntza eta kooperazioa zituzten helburu nagusi gisa (erresistentzia kutxen bitartez, adibidez), greba edo lan gatazka baten aurrean elkarri babesa ematearren. Ezaugarri hau sindikatuen eta greba eskubidearen debekuaren testuinguruan kokatu behar da, XIX. mendean eta XX. mendeko urte askotan zehar ia herrialde guztietan indarrean zeuden debekuak, hain zuzen.

Sindikatuaren lurralde ezarpena txikia zen testuinguruetan, langileen lan eta bizi baldintzen hobekuntzen aldeko protestak oso koitunturalak eta espontaneoak izan ohi ziren: enpresa edo fabrika mailan gertatu ohi ziren matxinadak, fabriketako sabotaiak, lan tresnen apurketak...

Sindikatuetatik haratago, industria eta landa proletalgoaren garapenarekin batera, langile mugimenduak sindikatuetatik haratagoko beste tresna ugari hornitzen jarraitu zuen, bereziki hedabideak eta alderdi politikoak. Horrela, egunkariak eta aldizkariak haien lan eta bizi baldintzak ezagutarazteko edota elkartasuna garatzeko tresna bilakatu ziren. Alderdiak, demokrazia burgesa garatutako herrialdeetan erakunde publikoen esparru politikoan langileen interesak txertatzeko balio izan zuen. Esaterako, 1875. urtean sortu zen Alemanian Sozialdemokratische Partei Deutschlands, eta 1879. urtean espainiar estatuan Partido Socialista Obrero Español-a.

SINDIKATU EREDU NAGUSIAK

Sindikatuak langileen ordezkaritza helburu duten borondatezko parte hartzea duten antolakundeak dira. Langileen interesen defentsarako, mobilizazioaren erabilera (protesta, gatazka, greba...) zein negoziazio kolektiboaren eta enpresari eta erakundeekiko kontzertazioaren erabilera burutzen dute, era berean, afiliatuei zerbitzuak eskainiz.

Enpresa edo lantoki mailan sekzio sindikalak antolatu ohi dira. Ondoren, sindikatu barneko federazio profesionalak antolatzen dira, ekoizpen edo zerbitzu adar zehatz bakoitzeko dinamikak eta borrorak bateratzearen. Azken hauek sindikatu estatal baten baitan koka daitezke federazio gisa, edo federazioak berak sindikatu izaera propioa izan

dezake. Federazio profesional hauek Erresuma batuan Trade Unions gisa ezagutzen dira.

Lantokiak edo enpresak gutxieneko tamainara iristean, europar testuinguruan ohikoa da enpresa komiteak eratzea. Komite hauek enpresaren eta langileen arteko hartu emana kudeatzea dute helburu, bai nagusiekin integratuta lan egiteko (kontzertazioa) edo negoziazio kolektiboa garatzeko.

Bestalde, sindikatuen indarra ez da soilik haien ahalmen ekonomikoarengatik zehazten. Besteak beste, afiliatuen kantitateak eta batasunak, negoziazio kolektiborako gaitasunak, beste eragileen aitortza mailak eta langile klasearen baitan mobilizazio ahalmenak eta integrazio ahalmenak sindikatu baten indarra eta garapena baldintzatzen dituzte.

Zertzelada nagusi hauetatik abiatuz, izaera ezberdina duten sindikatu motak topatzen ditugu historian eta munduan zehar.

LAN ESPARRUAREN ARABERA

Jada laburki aipatu den moduan, alde batetik gremio edo ekoizpen adarreko izaera duten sindikatuak aurki ditzakegu: irakasleen sindikatuak, erizainen sindikatuak... Bestetik, sindikatu orokorrak edo unitarioak kokatzen dira, esparru geografiko zehatz batean (estatala, nazionala, kontinentala...) lan esparru ezberdinak barnebiltzen dituen.



·1984 Euskaldunako greba, Bilbo

BORROKA EREDUAREN ARABERA

Klase gatazkak beste edozein gatazka baten logika berbera du. Bi aurkari daude (gutxienez) eta helburu kontrajarriak dituzte. Burgesek, gainbalioa erazi eta ahalik eta kapital gehien metatzea dute helburu, inbertsioak handitzeko eta lehia interburgesean atzean ez gelditzeko eta ez desagertzeko. Langileek, esplotaziorik ez jasatea dute helburu. Sindikatuek haien esparruan burututako helburu kontrajarri hauen kudeaketa eredu, hau da, sindikalgintza, ugarria izan daiteke, sindikalgintza ereduaren arabera sindikatu batek izaera bat edo beste izanez. Azken finean, gatazka batean etsaiarekin batu gaitzke, etsaiarekin negoziatzea dezakegu edo etsaiari gailentzen saia gaitzke.

Kontzertazio sindikalgintza. Sindikatu, gobernu eta patronalaren arteko harreman eta akordioen multzoa da kontzertazioa. Bertan, lan harremanen kudeaketa modu elitista batean burutzen da, esparru bakoitzeko liderrak batuz. Oro har, izaera kontserbakorra du sindikalgintza mota honek. Sindikatu batek kontzertazioa aurrera eramateko patronalaren eta gobernuaren oniritzia jaso ahal izateko nagusitasuna izan behar du gobernu eta patronal horren esparru geografikoan. Kontzertazio bidez hartutako erabakiak, lan harremanak arautu ez ezik, ekonomia legediak eta politika publikoak jorratu ohi dituzte: pentsioak, diru-laguntzak, lan erreformak...

Negoziatio sindikalgintza. Sindikalgintza eredu honek lan esparruko gatazka zein auziak patronalarekin negoziatzea du oinarri. Horrela, hitzarmen kolektiboak zein momentuko lantoki edo ekoizpen adar zehatzetako lan gatazken kudeaketa negoziatioaren bitartez burutzea du helburu. Ez da hirugarren eragileen sarrerarik ematen eredu honetan. Sindikatuek burututako langileen interesen defentsa modu korporatibo batean egin ohi dute: "nire afiliatuen interesak hauek dira, eta hori defendatzera dator".

Konfrontazio sindikalgintza edo sindikalgintza iraultzailea. Eredu honetan patronalaren eta langileen arteko harreman gatazkatsua mahaigaineratzen da. Gatazka horretan grebaren erabilera ohikoa izaten da, langileek enpresarietat haien lan indarrak duen balioaren jakitun izanik. Lan baldintzak hobetzeko bidean, piketeak, fabrika eta lantokien okupazioa, manifestazioak, mobilizazioak eta langileen arteko elkartasun erresistentzia fondoak bezalako tresnak erabiltzen dira sindikalgintza eredu honetan.

Hiru sindikalgintza motak eredu idealak dira, noski, sindikatu batek lan esparru eta garaiaren arabera mota ezberdinak jorra ditzakeelarik. Hala ere, oro har sindikalgintza mota baten gailentzea emango da

sindikatuaren praktikan zehar, beste eragile ekonomiko eta politikoen aurrean izaera nagusi bat ezarri sindikatuari.



·2021 Tubacex-eko greba, Aiaraldea

ESPARRU POLITIKOAREKIKO HARREMANAREN ARABERA

Sindikatuak kontziliatzailea, erreformista ala iraultzailea izan, esparru politikoarekiko harreman ezberdinak gara ditzake. Horrela, sindikatu batek eragile politiko batekiko harreman zuzena izan dezake, bere sindikalgintza ereduaren helburu politikoak txertatuz. Era berean, apolitiko gisa defini dezake bere burua sindikatu batek, bere ekintzak lan esparruan soilik garatuz.

Horrela, esparru kontziliadorean, sindikatuak harreman estua izan dezake alderdi politiko kontserbadore batekin, edo erreferentzia politikorik ez egitea bere sindikalgintza horiaren benetako aurpegia ez erakustearren.

Berdin gertatzen da konfrontazio sindikalgintzan. Sindikatu iraultzaile batek erreferentzia politiko gisa alderdi komunista bat edo antolakunde iraultzaile bat izan dezake, norabide berean diharduena. Sindikatu iraultzaile honek bere burua anarkistatzat badu, aldiz, gerta liteke bere burua eragile autonomo gisa definitzea eta klase gatazka langileen auto-antolaketatik garatu behar dela aldarrikatzea.

Anarko-sindikalismoa. Korrante ideologiko anarkistak XIX. mende amaieratik aurrera eragin nabaria izan zuen langile mugimenduan. Frantziar estatuko CGT eta espainiar estatuko CNT sindikatuak, adibidez, XX. mendearen hasieran eragina izan zuten haien testuinguruan. Korrante anarko-sindikalistaren arabera, langileak alderdi politikoetatik at indarrak batu behar dituzte, sindikatuaren bitartez. Hauek tokian tokiko eragileak



langileen borroka aurrera eramateko, fabrika eta lantokietan langile asanbladak (kontseiluak) sortzean datza ideologia honen antolaketa eredua. Garapen praktikoa izan du.

BORROKA EKONOMIKOAREN ETA BORROKA POLITIKOAREN ARTEKO ELKARLOTURA

Sindikatuak langileen esplotazio ekonomikoa gutxitzeko tresna bezala jaio ziren: soldatak igo, lan baldintzak hobetu, oporrak lortu, aparteko orduen ordaina zehaztu, egutegiak zehaztu, lan istripuen aurkako neurriak hartzearen garrantzia mahaigaineratzea...

Bestela esanda, klase gatazkaren baitan borroka ekonomikoa garatzeko sortu ziren, langile mugimenduko atal garrantzitsu bezala. Hala ere, borroka politikoa ez zuten alboratzen, hau da, klase gatazkaren baitan ulertzen zuten haien jarduna, eta etsaiaren aurrean langile borrokaren garapen politikoa ere aldarrikatzen zuten sindikatu gehienek: iraultza "egitea", alegia. Batzuek alderdi komunista zuten iraultza lortzeko erreferentzia gisa, beste batzuek talde armatu edo armada iraultzaileak, beste batzuek greba orokorraren helburua.

Hala ere, burgesekiko gatazkan XX. mendeko langile mugimenduaren aurrerapenak galtzen joan diren heinean, kontzertazio eta negoziazio sindikal gailendu da, oro har. Negoziazioaren bitartez eta kontzertazioaren bitartez baldintzak hobetzen saiatzen dira sindikatuak, baina neurri horien beharra klase gatazkaren testuinguruan kokatu gabe.

Klase gatazkaren oinarri den esplotazio ekonomikoa aurre egitea beharrezkoa da, langileen bizi baldintzak era zuzenean hobetzeko (edo atzerakada gehiago ez emateko). Baina momentuko hobekuntzak esplotazioa desagerrarazten ez duenez, konfrontazio sindikal gintzaren garapena guztiz beharrezkoa da, borroka ekonomikoa aurrera eramaten den aldi berean borroka politiko baten parte dela aldarrikatzeko eta berau elikatzeke.

izan behar dira, enpresariekin inolako kontzertazio eta negoziatorik burutu gabe. Greba orokorraren "mitoa" du ardatz korrante honek, zeinaren arabera sistema ekonomiko kapitalista gainditzeko tresna greba orokorra (gaur egungo terminoetan "greba mugagabea") izango den, langileen geldialdi orokorra eta bertatik abiatuz, langileen auto-antolaketa garatuz. Anarko-sindikalismoak liderren ordezkari alboratzen du, baita patronalarekiko negoziazioa ere. Mobilizazioetan eta grebetan indarkeria erabiltzearen aldeko hautua egiten du anarko-sindikalismoak presio erreminta gisa.

Langile autonomia. Langile edo klase autonomia deituriko korrantea XX. mendean lehen herenean garatu zen. Sindikatu formatik kanpo kokatzen da, baina langile mugimenduaren zatia da, sindikatuen antzeko funtzioa betetzen saiatuz. Anarko-sindikalismoaren autoritatearen aurkako ikuspuntua eta ordezkariaren aurkako posizionamendua muturreraino eramaten du korrante honek teorian. Korrante honen arabera, langileek haien kabuz garatu behar dute borroka, inolako antolaketa hierarkiko eta delegatorik eman gabe. Lan baldintzak hobetzeko eta kapitalismoaren aurkako

“Klase gatazkaren oinarri den esplotazio ekonomikoa aurre egitea beharrezkoa da, langileen bizi baldintzak era zuzenean hobetzeko (edo atzerakada gehiago ez emateko). Baina momentuko hobekuntzak esplotazioa desagerrarazten ez duenez, konfrontazio sindikal gintzaren garapena guztiz beharrezkoa da, borroka ekonomikoa aurrera eramaten den aldi berean borroka politiko baten parte dela aldarrikatzeko eta berau elikatzeke.”



·2021 Tubacex-eko greba, Aiaraldea

Honakoa une honetan greba mugagabeen aurkitzen den Tubacex-eko behargin bati egindako elkarrizketa dugu.

Zein da gatazkaren funtsa? Zeintzuk dira langileen eskariak?

Tubacex enpresako zuzendaritzak, Covid-19ren krisia baliatuz, talde osoko berrantolaketa bat martxan jarri zuen aurreko uztailean. Enpresako buruzagien helburua 150 lanpostu murriztea zen. Kaleratze horiek ekiditeko asmoarekin gure soldaten jaitsiera proposatu zuten, inolako negoziaketarik egon gabe. Momentu horretan hasi zen gatazka zuzendaritzaren inposaketan kontra. Langileon artean beti eskatu diogu enpresari krisi ekonomiko honi aurre egiteko

neurri koiunturalak adosteko prest gaudela eta, nola ez, edozein kaleratzeren aurka gaudela.

Egungo Tubacexeko egoera bilakaera bat izan duen prozesu baten baitan kokatu dezakegu. Ea hau nola egosi zen azal zenezake modu laburrean?

Aspalditik pentsatutako estrategia da oraingoan ezarri nahi dugutena. Jesus Esmoris aholkulari nagusia Tubacexen sartu zenean hainbat aldaketa egin zituen zuzendaritzan. Celestino Denisek eta Manuel Sarabiak ezarritako strategiaren ondorioz, gainbehera hasi zen Audio eta Amurrioko lantegietan, gaur eguneko egoerara heldu arte.

Zeintzuk izan ziren greba aurrera eramateko lehenengo hastapenak? Iritzi ezberdinak egon ziren langileen artean? Hori horrela izan bazen, nola kudeatu zenuten?

Zuzendaritzaren jarrera ikusita, langileok argi geneukan greba egin behar genuela. Hori izango zela gatazkari konponbidea emateko modurik zuzenena. Egia da hasieran zalantzak egon zirela greba mugagabea ezartzeko orduan, baina ERE-aren negoziaketan zuzendaritzak izandako jarrera zorrotzak zalantza guztiak argitu zizkigun. Horrek grebarekin aurrera jarraitzea bultzatu gintuen.

Langileen arteko elkartasuna eta borrokarako grina gatazkaren hasieratik orokortua izan zen edo borroka dinamikan zehar ehundutako harremanen emaitza izan da?

Denborak eraman gaitu elkartasun puntu honetara. Langile ugari duen enpresa da Tubacex eta denon artean sakonki ezagutzea oso zaila da. Azken finean, fabrikari gauden bitartean bakoitzak bere lanari jartzen dio arreta, baina piketeetan beste modu batean bizi tzen dira harremanak. Elkar ezagutzeko aukera izan dugu eta familia antzeko lotura bat sortu dugu.

Zer nolako jarrerak identifikatu daitezke, gaur egun, langileen artean bizi duzuen problematikaren aurrean?

Nik bi jarrera ikusten ditut. Batetik, boteredunen jarrera, hau da, Eusko Jaurlaritza (EAJ), Confesbask eta Polizia; eta bestetik, langileei elkartasuna adierazten dieten ostalaritza, komertzio, elkarte, enpresa komite eta norbanakoen jarrera.

Eskiroren fenomeno Tubacexeko gatazkan jokatzeko ari den paperearen balorazioa egin zenezake? Zer balorazio egiten duzue eskiroren figurarekiko?

Eskirolek ez dute behar beste pisurik izan gatazkan. Orain arteko protesta egunetan zuzendaritza eta departamentu buruak besterik ez dira sartu, zehatzagoak izateko, hitzarmen kolektibotik kanpo dauden langileak dira. Gainera, eskiroren kopurua 50 bat ingurukoa da, eta hauek ez daukate tuturik ekoizteko gaitasunik.

Zer nolako borroka molde eta dinamika burutu dituzue protestarako tresna gisa? Zer helbururekin?

Hasieratik oso aktibo ibili gara. Pikete gunean kolektibo ezberdinen elkarretaratzea, kotxe karabanak, manifik eta ohikoak izan daitezkeen protestak egin ditugu. Baina hauetaz aparte, bestelako

protestak ere egin izan ditugu. Aratusteetan moztutako umeei protesta egin genuen eskiroren autobusari harrera egiteko. Beste batean, San Celestinen entzierroa antolatu genuen eskiroren autobusaren aurrean korrika eginez, zezena izango balitz bezala. Gasteizeko parlamentura oinez egindako bi eguneko martxa ere antolatu genuen. Eta guztietatik xelebreena, Aste Santuan ospatutako Jesusen (Jesus Esmorisen) pasioaren antzezlan eta ondorengo kaleratze gutunen erreketak izan zen. Protestarako programazioa ez zaigu faltako gatazkak dirauen bitartean.

Eskualdean zelan bizitzen ari da lan gatazkak sortutako errealitatea? Zelakoa izaten ari da langileok jasotzen ari zareten babesa? Tubacexetik haratagoko jendea inplikatzeko ari da?

Eskualdea kezkatuta dago Tubacexek hartu nahi dituen neurriengatik. Familia asko bizi dira enpresa honetatik eta komertzio askoren etorkizuna kolokan geldituko litzateke kaleratze hauek gauzatzen badira. Egia esan, harridura gelditu gara eskualdeak emandako erantzunarekin, ez baikenuen elkartasun uholde hau espero. Egunero jasotzen dugu jendearen babesa eta animoak. Batzuek janaria ekartzen digute, badaude edari ekartzen digutenak eta, nola ez, erresistentzia kutxara dirua sartzen dutenak ere asko dira. Jendearen elkartasunak indartsuago egiten gaitu eta gure borroka haiena ere badela erakutsi digute. Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu emandako elkartasunagatik.

Zer eragile ari dira greba batzordean parte hartzen? Hasieratik zeuden berdinak al dira?

Enpresa komite osoa hasieratik egon da grebaren alde, baina badira gurekin hasieratik egon diren kolektiboak ere bai. Mugimendu feminista, Ennai,

enpresa ezberdinetako komiteak... Hauek gabe gure indarra ez litzateke berdina izango.

Zein izaten ari da sindikatuen jarrera? Zelan baloratzen duzue euren jarduerak?

Sindikatuak eskutik doaz gatazka honetan. Gezurra dirudien arren, oraingoan helburu bakarra eta berdina daukate denek, kalera-tzerik ez egotea. Kasu honetan, ezin geniezaieke ezer gehiago eskatu sindikatuei.

Langileek sostengatutako borroka dinamika zer nolako erantzuna jasotzen ari da enpresaren partetik? Borroka dinamika pairatzen ari den jazarpenera zer nolako ondorioak eragiten ari da? Nola kudeatuko dituzue?

Harriduraz ikusten dute gure borroka. Enpresak ez zuen halakorik espero eta gatazka bere kontra bihurtu da. Urduritzen hasiak dira eta itxieraren mehatxuekin hasi dira, hala ere, ez gaituzte engainatuko. Guk borrokan jarraituko dugu.

Zer nolako harremana mantentzen ari zarete egun Euskal Herrian zehar diharduten bestelako borrokekiko?

Elkartasunak pentsaera ezberdin bat sortu du guran. Erakutsi digute langileak batuta gaudela eta batasun horrek indartsuago egiten gaituela edozein gatazkaren aurrean. Horregatik enpresa ezberdinen protestetan parte hartzea oso garrantzitsua bihurtu da gure helburuak lortzeko. Azken finean, gure egunerokotasunean erabilitako esaldia erabiliz, borroka da bide bakarra.



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com